


**BIZKAITARRAI-  
BIZKAIERAZ\***

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)

304n. zenbakia

martia 2005



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE

## BIZKAIKO ELEIZEA ETA EUSKEREA

Badakit ZER aldizkaria abade askok irakurten dabena. Aurrean idatziko dodana ez da izango, bearbada, abadeon gogokoa, baina uste dot ori be entzun egin bear dabela.

Bizkaiko Eleizea kritikauko dot, gogor. Ori alan egiteko eskubidea badaukadala uste dot. Pekataria naz. autoritu egiten dot. Eta pekataria nazan ezkerro, eleizkizunetara joaten naz askotan.

Txiki-txikitatik euskerazko eleizkizunak izan dira, ia beti, etxeokak eta neuk be aukeratutakoak, gogokoenak. Eta euskeraz izan diralako sentiduten izan dogu geure burua eroso eta natural-natural eleizan.

Alde orretatik Eleizeak gubanako betebearra, zerbitzua, sasoi baten, zeozelan bete dauala esan geinke. Zesarri zor izan jakona emon egin jakon.

Baina emon be, aspalditik geiago ez jako emoten Zesarri berari jagokona.

Ogei urte inguru-edo asi zan zerbitzu ori indarra galduten. Gaur egun, egoera negargarria dala esan bear dot.

Arlo orretan Eleizeak emoten izan dauan zerbitzu ori makaldu da goitik beera. Makaldu egin da. bai kopuruan bai kalidadean. Non eta erri euskaldunetan, atan be.

Ardura au aspaldikoa da neure barruan.

Inoz, Bizkaiko Eleizan ardurak daukezan abade bateri baino geiagori azaldu deutset ardurak eta, era batera, kritika au. Euren erantzuna ez da izan arean be itxaropentsua, ez ei dabe gura euskerea. gure euskerea eleizkizunetan ghettoan lez bizi daiten.

Zer egiten dabe orduan ori konponduteko?

Eleizkizun elebidunak egin, au da, euskerazko eleizkizunak elebidun biurtu, erderazkoak, barriz, erderaz!

Eleizkizun elebidunetan neurriak eta neurriak be badagoz. Leengo euskerazko eleizkizunak, abadearen arabera, erdaldunago biurtu dira euskaldunago baino.

Esan bear dot. nik ikusitakoa ikusita, jokabide ori gero eta zabalagoa dala abadeen artean, erri euskaldunetan baina.

Sarri be sarritan, euskeraz esaten dana euskaldunok barrian entzun bear izaten dogu erderaz, ez da normalean bestetara jazoten. Jokabide onek euskaldunak nekatu eta gogaitu egiten gaitu, erre esango neuke, euskaldun kontzientzia daukagunok, beintzat. Itzulpena sufridu bear izaten dogu bein eta barrian.

Elebitasunaren atxakiaz gauza bera birritan entzun bear izatea, gero! Ez da au egoera normala, buru eta buztan bako egoera dala argi eta garbi esan bear dot.

Egoera minorizatuan (benetako ghettoan) biziten kondonauta gagoz, antza, euskalduna euskaldun dan artean, beintzat. Azken baten, euskaldunak galduz urten, ez erderaz jakin edo ez dakigulako, geure euskeraz bear dan moduko zerbitzurik emoten ez jakulako baino.

Beste alderdi batetik, eleizkizun elebidunetan erdaldunak eskua bete culi lotuten dira euskerazkoa ezer ulertu barik. Areek be gogaituta.

Zer zentzu dauka, bada, eleizkizun elebidunak egiteak batzuen eta besteen bearrizana bete egiten ez bada? Bat be ez.

Arazo au eta oraindikarren gogorrak dauke Iparralden edota Nafarroan. Ari gurean gagozan baino unengo fasean dagoz: euskerea an ia guztiz desagertu da eleizkizunetan.

Antzeko egoerara garoz, aurki, Bizkaiko Eleizeak.

Gipuzkoan, ostera, gauzak obetotxu dagozalakoan nago. Zergaitik? München edo Londonen gauzak erabat normal dagozana edonork daki. Zergaitik?

Gogoan dot, orduan umemokoa izan nintzan arren, On Kludio eta Erretolazaren edota Gogor taldeko abadeen aaleginak, euskera utsezko eleizkizunak gure Errian merezitako lekua artu cien. Asago lotu dira sasoi areek, zoritxarrez. Tristeziak,

Iniaki MARTIARTU

### ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro)-kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera errotan lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 C. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Babia, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

# EUZKADI'TIK AT'ZERRIRA BEGIRA. GAUR, MADRID'KO- PARLAMENTURA BEGIRA (2004-IX-30)

Or gertatu bait da euskaldunontzat illontako gertakizunik ezagugarriena: ATOTXA deritzan geltokian izandako sarraskiari-buruz (2004-III-11') egia jakiteko, ESPAÑI'ko Parlamentariak gertutako epai-maiaren aurrera AZNAR Lendakari izandako Jaunaren agerpena.

Amaika ordu egon da AZNAR mai orren aurrean itz-lari... berak nai izan duana bakarrik esanez. Amaika ordu egon dira epailleak... soilki AZNAR'RI entzuten! ari egin dizkioten galdeetatik, ark ez bait dio bat bakarri erantzun ¡Ez zan ba zaila epailleen lana! AZNAR'REK ez bait du interesgabekeria, zentzugabekeria ta itxuraz gezurra dana besterik esan:

— Aurrenekoa: ¡AZNAR bera Jaurlaritzatik botatzeko egiña izan zala ATOTXA'ko eraiketa edo asesinaketa-pilloa! Ikus bere itzak, zalantzan gelditu ez zaitez, "EL MUNDO" aznardarren izparringitik artuak: "El 11-M buscaba volcar las elecciones. Fue planificado para volcar las elecciones. Si yo hubiera convocado las elecciones el 7 de marzo, el atentado habría sido el 4".

Ori ¿txorakeri bat dala? Ez uste izan. Ori esatean, bonbak ipiñi zituzten musulmanak **"erren bertako batzuen esanera ibilli zirala sinistaerazi nai izan bait du**. Ortarako jarraitu du epailleen aurrean esanez: *"Los autores intelectuales de los atentados no están en lejanos desiertos de arena o en las montañas de Asia, sino aquí entre nosotros"* ¿Gure artean dabilzan eta ATOTXA'ko eraiketaren prestaketa ta eraketa guzia egin duten **"asesinos intelectuales"** oiek nor ote dira ba? ¡ETA zeukan eta dauka AZNAR'REK buruan! Ori konbeni bait zaio.

— Egun artan, ots, epaillaren 11'ean, goizean-goizik, AZNAR'REK eta nik, une batez, sarraski aren egillea ETA izan zala uste izan genuan. *¿Zer egin dek ETA? ¡Biarko auteskundeetan garaitza orokorra eman diok AZNAR'RL'!! oi u egin nuan nik. "Eskerrikasko, ETA. Biarko auteskundeetan izan nentzakean garaitzarik aundiena erran didak-eta"* izan zan AZNAR'REK oiukatu zuana.

Laister oartu nintzan ni ETA'ko mutillak gaiztoak bai baiña tontoak ez direlako, ez zitezkeala AZNAR'RI

bakarrik on egiten zion sarraski aren egilleak izan. OTEGI'ren itzaldiak ere adimen asko argitu zituan. AZNAR'REK, ordea, ETA' K bigaramonerako zekar-kion zori onak txoraturik, lengo bidetik jarraitu zuan, baita eguerdiz gero ere, ordurako erailleak ETA'tarrak ez baiña musulmanak zirala jende guzia oartu zanez gero ere. Ta Españi'ko erri-jende landerrak ere, iñoxente xamarra bai baiña tontoa ez bait da, ikusi zuan AZNAR, auteskundeak irabaztearren, gezurra-bidez atzipetu naiean ari zitzaiola. Ta... danok usmatu genuan Españi'ko erri landerrak gezurketa ori ez ziola barkatuko, eta bigaramoneko auteskundeetan garaitza, naiz auek ere merezi ez, SOZIALISTEI emango ziela.

— Alare, ACEBES barne-arazoetako-ministroa, ESPAÑIN; eta ANA PALACIO atzerri-arazoetako ESPAÑITIK-at, atsalde oso artan, eraillea ETA izan zala, zabaltzen ibilli ziran. Ortaz galdetu zaionean, AZNAR'REK, berak ezer ez dakiala erantzun du. Ori esatean era lotsagarrian utzi ditu bere bi lagun aiek. ANA PALACIO Andrea batez ere. Au izan bait zan EUROPA ALKARTUKO agintariei ETA'ren errua **ziurra zala onartuerazi** eta EUROPA' REN aurrean aitortuerazi ziena, eta enbajadalarri españiar guztiei, bakoitzak bera dagoan Laterriko Jaurlaritzaren aurrean ori bera egiteko agindua eman ziena. ¡ANETXO gaixoa! Ipurdia —ta soiñeko beste izkutuki guztiak— airean dituala, mundu guziaren aurrean billutsik utzi du bere Jaurlaritzako Lendakari maltzurak.

Latiegi'tar Bixente

**BiZK10CIT2iRRAI-BiZK7JCiERAZ \***



ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

---

# DEMOKRAZIAREN IZENEAN EUSKALDUNEN ZIGORKARI EUZKADI, ERDALERRIA'REN JOPU?

---

Gizon zintzorik ez da euzkokidearen bizkarretik, berea duan Askatasuna defendatu dezakenik.

36'ngo, guda madarikatu artan, Euzkadi zainbiziz burukatu zan eta espetxetan usteldu. Urte luzeetan oiñaze-zigorrajasan zuan, bere-berea ta auzolagunarena zan Askatasuna aldezteagatik, auzkoko oien jokabidea berdiña ta lagunkoia izango zelakoan.

Baiñan orduan ere, Ebro'tik beerako auzokide danak kabi bereko putreak zirala konturatu giñan, tiroak ez baitzetozen bakarrik frankisten aldetik, errepublikar "alia-tuak" beraiek ere barrkada berberetik aritzen bait-ziran euren modu maltzurrez gure aurkako tiroketan.

Auen leialtasunik gabeko erasoketak etziran erbetean ere auldu ta txepeldu. Nik, areagotu zirala esango nuke; batzuk disimuloz biguinki jokatu naiean eta geienak tri-kutsu batere xuriketarik gabe.

"Erdalerra erromesa" (Españi peregrina) arek aske bizi nai izan zuan. Erbetean gure euskal babesa, adiskidetasuna lortzen saiatzen ziran. Baiñan, azken batean mende-ko nai ginduten gu, ez aldi baterako betiko baizik. Eta jopu, batez ere, zetorren Españi berrirako.

Ordurarte, euren iñuxente itxurapean, errukigarri zeri-tzaizkigun gure erbeste "bidelagun" aiek, euskal arazoa aipatzen zan bakoitzean, ori-gorri zale ziran aietxen antzera, kopeta zimurtuz keiñu zakartsu jartzen zutela komenzitu giñan. Danak, batzuk eta besteak, berdiñak ziran: otso-zuloko kume, españiar.

Eta diodan guztia ez da artarako bidegairik ez dauka-dalako. Alderantziz baiño.

Begira: erbestealdiko urte odeitsu zaar aietan ba'zan gure inguruan, "Iberiar Kontsellua" zeritzana, Salvador Madariaga buztangorri arek burutzen zuana. Euskal abizenak etzion iritzia gure euskal aldera lerratzen. Eta bere mizto lerdetsuaz egundokoak jaurti zizkigun gure aurka.

Ala zion: "gallegoak, katalanak, leondarrak... Edestian gauza aundi. bakar eta originala sortu digute, "lo español". Baiñan, banatzailleak (gu, alegia) ez dakite zer dan aurrerapena, zer dan billakaera. Zerbaiten artean eta mendetan barrena eraiki dugun espiritu españiarra suntsitu nai digute euskaldun banatzaille auek. Eta naiago dute beren esparru edo artalde berezia sortu, aberekoia noski, espiritu gabekoa".

Ori-gorriak eta ori-gorri-moreak txaloka artu zuten Madariaga'ren espiritu goren-aizeputzaren idaz-ujol edentsua; eta baita ondorez zenbait izparringietan azaldu ere ustelkeri gaizkor au.

Nere ustez, au ez da gizon bakar batek egiña, zenbaiten (españiar danen) eragiketa bateratua da.

Ez da zalantzan jartzekoa bereizgarri zaien etiketa ideologiakoaren gaiñetik, ba zala eta ba dala oiek bateragarri duten zerbait: euskal Erriarekiko euren betiko bekaitza, betiko gorroto atabiku ta metafisikua, gure arazo neurtu ta erabakitzeke orduan bateratzen ditua. Danak españiar moztroz datoz estalita. Batzuk, esan dudanez, piperpote-kolore gorri-oriz eta besteak gorri-ori-morez. Kukumarru danetan Erdalerra inperialistaren aurpegi ezkabitsua ezkututzen da.

Esaidazute, ba al da en-epublikar buruzagirik gure askatasunaren alde agiri-agirian azaldu danik?

Garai aietako ainbat errepublikar eragilleren esakizun publikuak irakutzen ari natzaizute oraintxe bertan. Begi aurretik igaro zaizkit Gordon Ordax'en esanak españiar erkalean ministrari-kontselluko buruzagi zanarenak. Largo Caballero'renak. Alacalá Zamora'renak. Danok oso liberalak, beren iritzietan oso zabalak. Ba, ara erakus-buru Alacalá Zamora'k pasarte batean dirauskuna: "...katalanen eta euskaldunen erreibindikazio arazoa, Guardia Zibilla'ren arazo ximplea da".

Ez dut uste gure alde batere gizonki eta demokratikiro mintzo danik. Ez al da egia? Danak euren eragintzapean oillo-egapean esaneko, txita apal nai gaitzute euskaldunok. Eta ona nere galdera: eurak gure adiskide ba'dira, nolakoak ote gure etsaiak? Naiz-eta errepublikanoz jantzi, Españi Una'ren aitzo zorrotzez sastakatu nai gaituztenak etzaizkigu iñundik ere jadanik sinisgarri, bizkarre-ko txeratsua eman ez ba'datozkigu ere.

Oso bestelako azaltzen zaigu joan dan gizaldi ondarrantsu arte bizi izandako Pi y Margall federalista ospatsua. Auxe zion: "Españia'n euskotarron arazo politikua Frantzia'n baiño askoz tirabiratsuagoa da. Peninsulako beste erriekin ez ditu lotzen ez abendak, ez izkuntzak, ez izakerak, ez oiturak, ez legeak. Ez diote Estaduren ibillera politikuari jarraitzen. Garaitual (... indarrez!) foruekin kendu ziazkie soldadutza ta zerga bereizkuntza.

Agian, len baiño españolagoak ote dira? Su-azpian geratutako illintzi ta errautsak ezer onik ekarri ote dezaio-ke Españi'ri? Alako batean ez ote dute lapurtu zaien askatasun betera joko?

EGAÑA'tar GOTZON

## SORNE... ESKELA



**Sorne Unzueta Landeta and.**  
**"Utarsus"**  
 (Gregorio Errazti Araluzeren alarguna eta Frantziskotar Hirugarrendarra)  
**(Goian bego)**

**Hileta**  
**GAUR, ostirala, 14**  
**Arratsaldeko 6,30etan**  
**ALGORTAko Bariles Nikolas Deunaren Parrokian**

Urdulehen hil zen 100eko urterikaren 13an, 104 urte itxazila, Elexa Amaren Salbamenduak eta Alta Santuaren Bedinkazioa hartu ondoren.

Bere seme-alabak, Andone, Jon Ander (1) eta Francisca Pedros, Gotzonze eta Ignacio Ortiz (1), Sorne eta José Antonio Esturo (1), Javier eta Anuzena Laorteg; Iñaki, Jon Ander Errazti eta Marta Cloteg; Iñigo Ortiz de Errazti, Inés Ortiz de Errazti, Isabel Ortiz de Errazti eta Mar Macho; Irene Ortiz de Errazti eta Mónica Quirós; Aintzane Esturo eta Iñaki Gorrizola; Miren Esturo eta Iñaki Arkoitia, Sorne Esturo eta Mikel Garmentia, Andoni Esturo; Paul Ander Errazti, Jon Andoni Errazti, Estibaliz Errazti eta Mikel Elío; biobak, Jon eta Maitelek; Andoni; Arno; Pablo Itzi; Lucia; Iobak, lengusina eta beste senideak.



Samintasun aundia emon daust gure "Utarsus"en eriotzak: 104 urte ondo beteak bizi izan dauz, beti emakumeen artean eta andereño lez euskera eta euskal jakintza zabalzten. Irakasle izan da Lemoa'n, Olabari'n eta abar.

Osasunez ondo egoanean agertu ebazan gure ZER onetan, 1980n. urte-inguruan 22 idaz-lan bertsoz. Irakurri nai dauzanak ikusi begiz zenbaki oneitan: 3, 8, 10, 18, 20, 22, 25, 28, 29, 30, 33, 37, 38, 41, 52, 63, 69, 74, 84, 85, 88, 90.

Azkenengo lana idatzi ebanetik, ez dot bere barririk izan.

DEIA'n Alain Laiseka'k idatzi eban lanetik artzen dodaz urrengo barri oneik:

"Abertzale sutsua, idazle ta irakaslea" izan zala diño. Iru berba orreik argi agertzen dabe gure Sorne'ren izaerea, bear ba'da abertzale esaten danean "emakume" be esan daiteke, talde orretakoa zalako guda-aurrean.

Orain urtebete-arte Algorta'n bizi izan da bakarrik eta azkenengo urte au zarren egoitz baten igaro dau.

Ogeita amabost urtekoa zala asi zan idaz-lanak argitaratzen. Iru aldi dagoz bere idazle bizitzan: 1<sup>a</sup> 1930n. urtetik tik 1933n. urtera eta Bizkaitarra, Euskerea,

Aberri-eguna eta Jagi-jagi aldizkarietan olerkiak eta kondairak idatzi ebazan. Gero guda-aldian isilik egon bear izan eban. 2<sup>a</sup> 1933n. urtetik 1977n. urtera: Emen olerki bat agertu, "Euskal Gogoa"n eta beste bat "Eusko Deia" n.3<sup>a</sup> 1990n. urte-inguruan "ZER" aldizkari onetan bertsoak idatzi ebazan eta 1995n. urtean Labayru'k batu ebazan lan guztiak liburu baten.

Idatzi dauz eritxi-lanak, elebarri bat, prosaz ainbat lan baiña olerkigintza eta lirika edo barru-min-saillea izan da bere mundurik gurena.

**OLAZAR** tar Martin'ek

## MUNGIA'KO IKUSPEGIA **AZOKAN**

Toki eder bat zabalik dago Mungiaren babesean, erri ederrak, alan bear-ta zoriontasun betean, giza bizitzak bere ardurak izan oi ditu lurrean, lan ta jolas danetarikan bizitzaren omenean.

Mungi ederrak jatortasuna dauka bere inguruan, mendi ta zelai aintzagarriak gora goraka aurrian, tantai ederrak, etxe zuriak erri goratasunian, danak batera edertasuna sortuten dabe errian.

Erri ertzian ba da toki bat proba-leku izenagaz, bide ederrak, toki zabalak dana edertasunagaz,

alkartze onak egiten dira abere ta gizonagaz, egun eztiak lagun artian poz-giroz ospatuagaz.

Alkargo etxe zoragarria sortu da bertan, aurrian, giza bizitza indartuteko alkartasun onenian, janari gozo, edan baltzak daukazuz ikusmenian, guztiak deika gozartuteko gozotasun ederrian.

Laneko tresna aipagarriak ba-dira bertan, ugari, igetai, atxur, zorrotz zorrotzak adi adi gizonari, bildurgabeko sega nausiak ta onentzako zorrotzari, baserritarrak bear dituan laguntzailliak ugari.

PAULIN

---

# A LOS EXCMOS. SEÑORES DE LA CONFERENCIA ESPISCOPAL

con deferencia y respeto

---

Con extrañeza -y tristeza- he leído la declaración que el viernes 8 hizo a la prensa la CONFERENCIA ¿quién? ¿su presidente? ¿su secretario? Porque me es imposible creer que TODOS los obispos estén de acuerdo con ella. Jugaría cualquier cosa a que, al menos mi Obispo, no la ha aprobado.

Sres. Obispos: Les va a contestar a uds. el benemérito CARDENAL PEDRO SEGURA. Pero antes me gustaría decirles también algo por mi cuenta, pues NADA de cuanto tan solemnemente han pretendido juzgar uds. (Plan Ibarretxe, multiseccularidad de la sociedad española, importancia de la constitución, independencia vasca) pertenece de suyo a la Revelación. Está pues, en principio, fuera del magisterio de la Iglesia. Por lo tanto, hubiesen hecho mejor en callarse.

Pero como el uso que de todas esas figuras jurídicas se haga puede ser bueno o malo, me dirán uds. que también pueden juzgarlas como verdaderos Maestros de la Iglesia, desde el terreno de la ética cristiana. Y les diré que sí, pero les añadiré que ese juicio ya está hecho desde hace tiempo en la Iglesia, y es totalmente contrario al que uds. tan triunfalmente han presentado a su pueblo. Lean por favor los discursos de los dos últimos Papas en la ONU ¿Es posible que los desconozcan? Claro está que esos fenómenos por uds. juzgados son figuras jurídico-sociales, y que en cuanto ciudadanos también uds. tienen derecho a juzgarlos, pero haciendo constar antes que, en ese caso, los juzgan como doctores privados y no como cabezas de una Iglesia tan importante en el seno de la Iglesia universal como la española.

Dicen uds. 1.º: que España es "**una sociedad multiseccular**". Eso, especulativamente, es fruto de la ignorancia y objetivamente es una gorda mentira. Esta España actual es una sociedad **muy moderna**. Data de principios del Siglo XVIII (Bonifacio XII; Felipe V) y se completa a fines del siglo XIX con la supresión del Régimen Foral Vasco (Constitución de Cádiz; Espartero; Cánovas del Castillo). Anteriormente, la Sociedad Española post-medieval fue una confederación de reinos independientes (Corona de Aragón, Reino de Navarra y los otros 3 estados vascos y, brevemente, Portugal, unidos a la Corona de Castilla. Esa fue la esencia del Régimen Foral Vasco. Y mientras estuvo vigente no hubo "Problema Vasco". Y no fue el País Vasco sino España quien violentamente lo suprimió.

2.ª: Que el Plan Ibarretxe es un "acto de voluntad de poder" ¿Y la oposición española feroz, salvaje y muy a

menudo calumniosa, no lo es? Ibarretxe no trata de imponer a nadie su voluntad. Si hubiesen uds. leído por entero ese su plan y lo que sobre todo ello ha dicho él, y no sus calumniadores, sabrían que se ha cansado de gritar que su plan es una propuesta democrática para ser discutida en pacífico diálogo y siempre sujeta a ser aceptada o no en consulta democrática al pueblo. Créanlo uds. o no, el Lendakari, el tan villanamente vilipendiado y tan cobardemente calumniado Lendakari del Gobierno Vasco, es hoy el político más serio, más limpio, más importante y objetivamente cristiano del Estado Español. Es la opinión que uno necesariamente saca de analizar serenamente su comportamiento. Que además sea nacionalista, es algo que como cristianos no nos interesa ni a uds. ni a mí. Corno político todos podemos criticarle pero con honradez ¿Por qué, pues, no se han cuidado de limpiarle la baba mentirosa que sobre él ha lanzado el terrorista estado español? ¿Es que el Lendakari se encuentra fuera del cuidado pastoral de uds.?

3.º: Nos han dicho uds. que la Constitución (a pesar de sus defectos) es hoy ineludible, es decir, absolutamente necesaria ¡Pero Sres. Obispos! al no ser un precepto divino esa su constitución de uds. es mutable, corregible o desechable en cualquier momento. Eso... además de ser un documento sustancialmente super-terrorista, porque en virtud de uno de sus artículos en el que uds. seguro que ni se han fijado, amenaza a los socialistas con el máximo terror posible: echarles encima al ejército a sangre y fuego.

— Ah, sí! La respuesta de Segura! En realidad es una pregunta que en tiempos de Franco hizo a unos canónigos de su cabildo a los que se encontró condenando a los nacionalistas vascos desde el punto de vista religioso; "Srs. canónigos: ¿Quiéren decirme en qué versículo de la Biblia, en qué Definición Dogmática de un Concilio Ecuménico, en qué Declaración Solemne de un Papa, en qué cánón del Derecho Canónico o en qué punto de la doctrina cristiana se dice que España debe seguir siempre teniendo el mismo número de Provincias porque es indivisible? Es la misma pregunta que yo les hago a uds. porque me da la impresión de que han hablado uds. de lo que no conocen, ni tienen interés en conocer. En ese caso, por favor, no hablen, porque con tales afirmaciones exclusivamente políticas y partidistas están manchando la faz de la Iglesia Universal.

Vicente Latiegui Eraso  
Sacerdote. Tfno: 945 23 31 40

---

## EUSKALERRIA-EUROPA

---

Gaurko Laterri menperetzaille agintariak, berezko erriaren izenean artzen dabez agintaritzazko tresnak, beti erabiltzen dabez erriko agintaritzaren gaiñetik, euren irudimenezko arrouzkaritzan.

Zergaitik .....buru-gogorkeri ori?

Argi ikusten dana gaurko Laterrien agintaritzetan, ezin dabezala gaiñetik kendu, edestitik datozen Erroma-Godo'tarren erdirakoitzasunezko menperetzaille ez-bear ta aundikerizko oitura txarrak. Ez dakit nolako elburuak lortzeko.

Eta JAUNGOIKOA'ri ..... zer !! eskeintzeko?

Ala..... sasi-jainkotasunean jarraitzeko?

Dana dala, erdirakoitzasunezko Laterri oneik demokrazian kokatuta gagozela esaten dabe, demokraziaren zentzua asmatzen asi garenean bakarrik.

Demokraziaren jokuak eskatzen dauan leenengo araua, ordezkari guztientzat bardiñ izan dadin, danoen eskubideak zaintzea da, baktzaren ordezkaritzak zaindu daitezana.

Eta..... berezko oiñarri-ori zergaitik?

Danok bardiñ jaioten garalako, Nortasunezko borondate-onenean eskubidearen-zorrak bideratzeko (gestionar).

Berezko lege orren bidez, Mundu onen gizartea gai-lez bereiztasunean agertzen dalako, eta Mundu-zabal onetan gizartearen babeserako, giza'ren seme/alabak urbillean kokatzen diralako, or !! berezko leñuak eta erriak, bakoitza bere zentzuzko ulermenean.

Oraiñarte berezko erri ta erritarrak (menperetzaille agintariak kontuan euki gabe), ikasbideko lojikan oituratuta, bizitzaren babeserako ekarri daben jakintza, bai Mundu onen berezko baliokizunak amaitzen doazela, eta gizartearen uQaritasunean, lurrak emoten dauskuzan aukerak edozein motazko mozkin bereiziak ugaritzeko ikusiz. Bear diran sal-erosketako ordezkaritzaren bidez, erri ta erritarrak berez eta bakez, alkartasunezko batzangotasun (globalización) on-batera bideratzen gaitu.

JAUNGOIKOA'ri, lora-sorta ederreneko eskeintza izango zan, gizartearen bereiztasunean eskubide-zor ordezkaritzako egi-bide-on orretan egiten diranak. Azken baten gaur, BERA'k Nortasunari emondako Askatasuna EUSKALERRIA'ri lez, erri orreik diralako geratzen diran erri bakarrak curen Lege-Zaar sinismeneko ame-

tsean, Nortasunaren Askatasuna babesteko.

Baiña zoritxarrez, Erroma-Godo'tarren gandik oraiñarte edesti guztitik datorren menperetzaille pentsakera ori, geratzen diran azkeneko bereiztasunak ezereztu gura dabe, beti, berezkotasunari aurrea artuta eta gizartea beartuta, beste batzangotasun aundiagotan ezartzeko.

Eta emen iru galdera:

- a) Zer ikasi dogu edesti guztian datorren menperetzailletasunezko irakaspede orretatik?
- b) Zergaitik ainbesteko estukuntza edo premiña?
- d) Nun geratzen dita gizarteko Nortasunaren eskubi-deak?

Leenengoari erantzuna: Ikusi dogun gauzarik aundiena, menperetzailletasunezko norkeri ori, muga barik gorantza egiten ebanean, negargarrizko gudak, norkeri orren neurrian aundiagotu egiten zirala, erri -gizarteak oiñaze ta ikaragarrian etsimenezko miñ aundietan mendetuta.

1.789'an Frantzia'ko iraultza egin zanetik eta Europa guztian menperetzaille Laterri oneik ipini ziranetik, baita norkerizko andi-nai izate orrek ez daukalako amaierarik, menperetzailletasunezko oiñarrian erperatuta dagoelako. Sasi-jainkotasunaren ateak zabaltzen dauz, gaur lez aukera daukanentzat (Amerikarrak adibidez).

Ekiñaldi orren bidez, Erri -gizartearen Nortasunak ezereztuteko alde dagozanak, erri -gizarteak naastekatu egiten dauz, danok morroitasunaren mendera bideratzeko.

b) Zergaitik ainbesteko estukuntza edo premiña?: Antziñatik, Menperetzaille agintari eta lotsagabeko merkatariaik: Bata bere arrokerizko aundikerian, berezko errien gaiñetik agindu gurean, eta bestea berezko erri ta erritarren neurrizko mugaren zergak kendu gurean, diru orreik curen partikan edo zarpelean euki naian, beti ibili dira, erri ta erritarrak morroitasunera bideratu gurean eta Nortasunaren neurrizko mugak, lotsarik-gabe ezereztuteko alegiñetan, mugak, curen irudipenezko neurritan kokatzeko.

Orregaitik, ekintza orren bidez, beti ibili dira berezko errien aurretik curen legeak ezartzen, Ludi onek daukazan legeak kontuan euki gabe.

Sasi-lege orreik ezartzeko, berez edo gizarteko etorkizunean, Nortasunezko bereiztasunean oituratuta etorten



---

## AUTESKUNDEA

---

ziran lege ta elkarreak, eurenganatu egiten ebezan eta orain be egiten dabez, erlijio, bizitzarako jakiteak, askakundeko aurkitzeak eta abar. Azken baten jendekuntzaren gizabidea, daukien maltzurrezko sasi -asmakuntza biurtzeko.

Baiña ekintza orren bidetik eta kontuan eukita, bizi au giza'ren berrezkuntza labur bateko epean joan-etorrikoa dala.....beti borrokan ibili bearra.....JAUNGOIKOA'k bizi onetara bialdutako Nortasun barriak menperatzeko ?.

Sekula be ezin da lortu ori, JAUNGOIKOA'ren LEGEZKO giza -barnean bizi onetara agertzen garalako.

d) Nun geratzen dira gizarteko Nortasunaren eskubi-deak?

Morroitasunezko giza-bide joko orrek, Mundu onek daukazan legeak eta norkerizko askakuntzaren legeak naastekatu egiten dauz, gizartea ezinezkoa dan egi-guzur erdiko alkarbide batera eroanda

Eginkizun orrek, gizarteko noraezak konpon -eziñagaitik beti bideratu gaitu guda edo borroka lazgarritara.

Eta elkar -aurkako guda guztien edo borroka latzgarrien ostetik, ikusi dogunean zelako triskantzak geratu diran eginda, danok damututa, beti (1.940-45'an Mundu onen azkeneko borroka latzgarrien ostean bezala) joan gara berezko legearen laguntza eskeintzera, danak zor daukaguzan Nortasunaren eskubideak lotsagizunezko ardura berezi baten ezarri daitezcan.

Eta ori da gaur, Mundu onen gizarteak daukan egarria.

Eta bakearen billa daukagun borroka, menperatzaile askakuntz orreik aldatzeko. Gure legeak, Izadi onek daukan legean ezarri daitezcan.

### **EUSKALERRIA-EUROPAN:**

Euskalerraren edesti guztiko gizon-emakume, JAUNGOIKO zaletasunean eta aberrikoi zintzoaren bidetik ibili diranak, baiña batez be SABINO, KANPION. AGIRRE. IRUJO, AJURIAGERRA, eta aibat seme /alaba-on euki dauazan, bai gaur daukaguzan seme-bikainaren bidetik, beti jakin dau EUSKADI'ren arazoa, Mundu guztiko arazoa dala. Baiña batez -be, Europa'rena. Bere ekimenetik sortu ziralako arazo guzti orreik, eta gaur beti-lez bera izan dalako Mundu onen gidaria edo etika arloan indar geiago euki dauana.

Europa'n gaur agintzen dabenak, espataren bidez daukaguzan Laterriak dira.

Eta curen jaurkintza uts asko euki arren, guzurrak maldaberan bideratzen gaitulako, arrokerizko norkeri ta indar utzean aurrera egiten dabe.

Europa'ko Laterri auek, etorkizunean bada-ezbadako oitura txarrean datorren erdi-guzur lege-bide ori, eta diruaren jabetza beren benetazko ordezkartizan ezarri ezker.....daukien sasi-jainko mailla galzorian ipintzen da, eta orregaitik ez dira ausartzen benetazko aldaketa egiten, bear dogun demokrazi on-baten ezartzeko.

Euskalerrria gaur, Eropa'ko ikus-tokia da. Emen gertatzen diranakaitik, beste erriak aleginduko diralako alde batera edo bestera egiten.

Orregaitik Euskadi, aukera paregabeko baten dagoelako, gaur, iñoz baiño demokrazizko zentzun aundiagoe-nean bideratu bear dauz bere eginkizunak.

Europa'ko erri ta gizarte guztiak ikusi dagian, Nortasunezko eskubidearen zorrak zaindu ta lotsa aundiko arduran euki ezker: Bakearen adiskidetasunak; seme/alaben ardurak, ikasketaren goi-maillako jakintzan kokatu daitezcan; indarrizti (dinamica) orren askakunde aurkimenak lortzeko eta ausartasuna erria askatasun osoan aurrera eroateko; eginkizun orren bideko, berez agertzen diran ondorioak edo ordezekoak dirala.

Europa'k, eginkizun bikaiñ ori ikusi ezker, Euskadi'ri eta Euskalerrria'ri, zalantzarik gabe lagundu egingo dautzela, daukan askatasunezko NORTASUNA erri guztien artean ezarri dagian, bere egarria be badalako.

Len, gure arbasoak gai eta ausartasunezko lan-bikainagaz ezeren arrokeri barik alegindu ziran, baiña ez ziran denborak ezer lortzeko, guzurraren laguntzaileak ez ziralako argi ikusten.

Gu, aalmen gitxiagokoak al izango ete-gara... gaurko aukeran dauan, guzurra ta maltzurkeria begi-bistan agiri agirian itziteko?

EUSKALERRIA'k, or!! dauka erronka, bere lan bikain eta Ibarretxe'ren esondapenekin.

**ARROPUZTASUNEZKO NORKÉRIRIK-GABE LORTU BEAR DAN GAUZA DANA.**

ATUTXA'tar PAUL

**ZORNOTZA'n 2.005'an URTARRILLA'en 11'n**

**BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ**



# ERBESTEKO IBILTARIAK

## EUSKALERRI ZARREKO BIDEAK-ZEAR

### (1502) BITORI

URTE ORTAKO IBILLALDI AU EGIN ZUTENAK. Urte ortan JONE "ZOROA", Errege Katolikoaren alabak eta I FELIPE ("EDERRA") I Maximiliano Alemania'ko inperatorearen seme, ta aita orren izenean BEE LURRAL-DE'etako (gaurko Belgika eta Olanda'ko) Euskalerrria iparretik egora. Senar emazteak ziran 1496'az gero. Españi'ra zetozten, Juana Gaztelerrriko erregei'gai izendatua izan zalako.

Orrelako Andre ta Jaun ospetsuen ibillaldi ortan aitoren-seme edo aristokrata askok artu zuan parte; eta iru izan ziran —aski garrantzi aundiko gizasemeak auek ere—, bertan gertu zanaren berri eman zigutenak.

\*\*le

IBILLALDI AREN BERRI AU DAMAIGUNA. Iru oietako bat Antoine Lalaing Montigny'ko Jauna. Orrek idatzi zuana aztertuko dugu gaur, Julio Zesar Santoyo'k frantzeratik gazteleatuta argitaratu zuan liburutik artuta.

LURRA. Idazki orrek aurrena Euskalerrriko mendiak aipatzen ditu. Batez ere Aitzkorri. Berak San Adrian esaten dio, eta bereziki mendi orren goi-maldan dagoan lurpetiko igaro bide edo tunela gertatzen zaio aipagarri: "en su cumbre hay un túnel por donde es necesario pasar para ir a Santiago". Ori ez da egia; tontorrean, ots, en la cumbre ez bait dago mendipeko igaro-bide ori.

Andik igaro diran beste guztiei bezala, arras bildurgarria iruditu zitzaion toki ura: mendialde "txarra, txit arrisksua eta beti elurrez bete". ¿Elurrez bete? Beti, ez. Baiñan bai, bikote ospetsu ura bezala, negu-mendate ortara negu gorritz abiatzen diranentzat.

Gudagizona ere bazan Lalaing izeneko idazle au ta, oartu zan Gaskuña egoaldetik babesteko toki egokia zala Aizkorri'ko mendialde ura.

\*\* \*

SEGURA, URI GIPUTZA. Segura ta Gaskuña dira ematen dizkigun aurreneko erri ta lurraldeen izenak.

Segura, aro zar artan Tolosa ta Bitori

artean, Gipuzkoa'ren Goyerriko eta Araba'ren Zelaidi'ko uririk garrantzitsuenan zan; arri-orma zabalez ederki esitutakoa.

An lo egin ornen zuten JONE'k ta FELIPE'k ilbeltzaren 31'ean, lau leguaz luzeko bidea ibilliz gero.

\*\* \*

GASKUÑA Oraingo Frantzi'n dago. Ez ditu beti muga berdiñak izan. Julio Zesar gudaiburu erromatarraren denboran Akitani esaten zitzaion, eta Auñamendi'tik iparrera Carona ibaiaren ibarreraiño iristen zan. Lurralde guzti ura Euskalerrria zan garai artan.

Baiñan ez zan, Euskeraren muga. Gure izkuntz au, Garona ibaiaz iparrera ere, urrutira iristen bait zan: sortaldetik datorrela, Bordele'ren albo-alboan, egoaldetik doakion Garona'rekin alkartzan dan DORDONA ibai ederraren aran osora. Ta, sortalderuntz berriz, Lurrart'Itsasoaren ertzaraiño.

Bá Garona'tik onunzko lurralde guzti ori dana zan Akitani ("Irugarren Akitani" Zesaragusto'z gero, inperatore orrek iparretik eta ipar-sortaldetik bi puska aundia erantsi bait zizkion egiazko gure Akitani zarrari: "Akitania Prima" eta "Akitania Secunda").

V eta VI mendeetan Barbaritarrek etorri z gero ordea, Irugarren Akitani orri WASCONIA esan zitzaion, Waskonia erromatarren garaietiko itz zarra, Vasconia, berpiztuz. Eta orduan Waskonia itzaren "W" -ta "NI" oiek "GU" ta "Ñ" ágozkatzen zituztelako, izen ori GUASKOÑA esaten zuten, eta ortik sortu zitzaigun GASKUÑA, gaur oraindik bizirik dagoan itza. Eleberri edo nobela zale ba'zera, oroituko duzu Alexander Dumas'n Dartañan (D'Artañan) eta bere iru lagun mosketelariak Gaskoñarrak zirala: "GASCONS".

EUSKALERRIKO KAIAS. Gero, "de los muchos puertos que hay en estas zonas", kai auek aipatuko dizkigu: "Fuenterrabia, Santa María, San Sebastián, Bilbao, Santander y otros". Joan-etorri aundiko kaiak zirala diosku: "salen muchos navíos que luego van a todas las partes del mundo".

Kai oiei buruz nik au esan nai nuke: **Santander** eta Santander'ko uria dagoan tokia ez dirala, edesti-aroa asi zan ezkerre beintzat, euskaldunak izan. **Bilbao**, beti, Bilbo ez baiña Bilbao (Gipuzkeraz BILBAU) izan dala, Sestau ere Sesto ez baiña Sestau (SESTAU) izan dan bezala.

Santa María zeritzan kai ori non egon zitekean ziur ez dakidala ¿Pasai ote da? Orrela bear luke, idazleak sortaldetik sartaldera darama zerrenda ori zintzo eramane nik ba'lego. Baiñan ori egia ez dalako eta Lalaing'ek euskalduna ez dan Santander ere aipatzen dualako, nik ziurki esango nuke idazki ontako Santa María ori SANTONA dala. Puerto de Santa María esan bait zitzaion kai orri dokumentu ugarriz egiztatu dezakedan bezala.

Kai orrek, Santoña'k, aurrean daukan LAREDO orduan Bizkai'ko Enkarterri bat zan. Laredo'koa izan zan ain zuzen Juan Lacosa garai artako mariñel ospetsua, eta beti "JUAN VIZCAINO" esan oi zion bere buruari. Ta SANT-ONA bera ere noizbait euskalduna izatea badaiteke, Oña, Done euskaldun bakartasun-zale baten izena bait darama.

\*\* \*

ONDARRABI. Ori izan du gure Ondarrabi'k betiko izen egokia: Ondarrabi ¿Izen egokia zergaitik? "ABI", gaztelera "kantera" dalarik, Ondarrabi dagoan tokia ondar asko ta askoren "ABIA" edo "kantera" dalako.

Ondarrabi, beraz, eta ez ONDARRIBI, "ABI", gaztelera, "kantera" dan bezala, "IBI", gaztelera "BADO", ots, **"ibaia oñez igaro daiteken lekua"** bait da, eta an ondarra bai, ondarra ugari dan bezala, ibi edo "bado"rik ez bait da. Kilometroak! dagoz Ondarrabi'tik ibi edo "badorik" urbillelenera. Ibi edo bado urbillen ori Endarlatza'n bait dago, Napparroaren sarreran.

Arantzazu-aurreko Euskaltzaindi bikaiñ maitagarri aren **tximu** paragarria dala dirudian Arantzazu-osteko Euskaltzaindi txorabiatu onek ipiñi dio izan molakaitz ori. Gaiñera, naiz Ondarrabi'ren aurrean dagoan Endaya'ko ondartzta laburditarraren izena ¿"H"rik gabe! ONDARRAITZ izan, Ondarrabi'ri, ofi-

zialki berak ipiñi dion izen bera oni, "H' bat ezani dio aunetik, "manchando su limpia O inicial, hermosa como una luna llena. con la brocha untada en el estercole-ro". idatzi zuan. amorru santuak eraginda. GORKA OTEIZA'k **"Euskerazaintza El Batua y la Muerte del Euskera"** liburu-rako antolatutako zidan itzaurrean.

Arantzazu osteko Euskaltzaindiaren ontan gizon-emakume zintzoak badagoz, baiñan oraindik, Euskaltzaindiaren onak, Erakunde edo Institutuzio lez. Franko'ren azken-arogan orduango gure ETA-zale Marx-miresle

aiak sartu sioten giroa darama bere baitan.

Badakit, baitare, ondarrabiarrek, izketarako bere erriari ONDARRIBI esan oi diotela. Arabarrek beren MONASTERIOGUREN izeneko erriari MOSTRUN, lejonatarrek berenari LEIOA esaten diotela. Aldakera oiek bezalakoak milla —eta laburketak eundaka millaka-egiten ditu erriak "nekerik txikienaren legearen" araura, itzegiteko agoa irikitzen duan une bakoitzean, baiñan erriak badaki mozketak ta aldaketak oiek egiazko izenak ez dirala, egiazko izenen laburketa ta alda-

keta esate-errezak besterik ez dirala, eta ez ditu beñiere idazterakoan erabili. Arantzazu-osteko Euskaltzaindiaren iñozo au gutzia lardaskatzen asia dugun arte.

\*\*\*

GARAI ARTAKO EMAKUMEAK. Gauza jakingarriak esaten digu Lalaig'ek emakumezko aieiburuz eta aien jazkeriburuz, baiñan luze goaz -ta datorren illera-ko utziko dugu guzti ori.

Latiegi' ta Erasos' tar Bixente

## EUSKERAZALEAK

# 2004N.URTEKO EKINTZAK

Beste urtebete joan jaku gorabeera aundi barik eta geure eguneroko lanari ekin eta ekin, elburu lez ain zapalduta daukagun bizkaiera berbaz eta idatziz aurrera ateratea dogu-la.

### "ZER" ALDIZKARIA

Sasoiz argitaratu doguz aurtengo 11 zenbakiak, Foru-Aldundiaren laguntzari, idazleen gogo onari eta arpedunen ordainari eskerrak.

300n. zenbakian azkenengo eun zenbakietan argitaratu diran idazlanen eta idazleen laburpena egin dogu. Lan orren asieran esaten dan lez, 74 idazle izan dira eun zenbakietan idatzi dabenak eta curen artean 61 dira barriak eta 13 lendik idatzi dabenak. Azkenengo oneik dira ugarrienak. Aldi onetan il jakuzan idazleak 12 izan dira.

Aldizkariaren gaiñea egokitu egin dogu, erdiko irudia kenduta.

### IKASTURTEA

37n. ikasturtea asi dogu, ikasleen kopurua gitxi gorabeera aurreko urteetakoa dala eta ordaintzen dabe-na 135 euro dala.Iru maillatan irakasten da, eta gaiñera alkarizketa..

### EGUTEGIA /TAKOA

Zori txarrez, ogei urtean argitaratu ondoren, aurten ezin atera izan dogu eguneroko orritxua eskintzen dauan egutegia. Gure aldetik dana egoan gertu, irarkolako lana be egin-

da, baiña bbk'k diru-laguntza ukatu egin dausku beste zio batzuren artean Euskaltzaindiaren arauak beteten ez doguzalako.

Eurena da dirua eta ba-dauke orretarako eskubidea. "ZER" en ikusi zeinke izan dogun artu-emonaren barria,abendukoa dan 301n. zenbakian.

### EUSKAL ASTEA

Urte guztietan lez, aurten be egin dogu Euskal Astea, zemendiaren 22'tik 26'ra

Lenengo gaia bertsoaritzan izan zan eta Legarreta'tar Asier izan zan emongo ebana, baiña Irlanda'ra joan bear izan eban eta ordeztu gaia bera azaldu euskun Joxemari Murua Goñi'k.. Ederto .

Bigarren eta bostgarren gaiak Atutxa'tar Paul'ek emon ebazan. Euskalerrria ta Europa mintzabide zirala..

Irugarren gaia agiri au izenpetzen dauanak azaldu eban, H'aren arazoa argi eta garbi agertzeko.

Laugarren gaia azaltzeko Markiña'tik etorri jakun Aginaga'tar Miren Kasilde abertzale bizia eta "Abertzaletasuna gaur" izan zan bere berbabidea. Pozik euntzun genduzan bere bizi-ikasiak. Berbaldi atsegiña izan zan 86 urteko emakume abertzale onek emon ebana.

### IPUIN-SARIKETA

Bilbao'ko Udal-Batzaren lagun-

tzaz, urtero lez, ipuin-sariketa eratu gendun eta urrango bost oneik izan dira sarituak:

1<sup>a</sup>.-Joxemari Murua Goñi

2<sup>a</sup>.-Legarreta'tar Asier

3<sup>a</sup>.-Merino'tar Palmi.

4<sup>a</sup>.-Arrien eta Orbe'tar Ziortza.

5<sup>a</sup>.-Narbaiza ta Etxeandia'tar Alberto.

### BATZAR BEREIZIAK

Urte-barruan batzar bereizi bi egin doguz esondapen bat aztertze-ko. Esondapena auxe zan: "Gaurko lan-etxe au saldu eta lonja edo etxebarren merkeago bat erosi". Gaia ondo aztertu ondoren gauzea autarkiz erabagi zan eta ezetza emon jakon esondapenari. Orregaitik, gauzak len lez jarraituko dabe.

Eskerrak emoten dautseguz laguntzaille izan doguzan guztia, batez be Foru-Aldundiari, Bilbao'ko Udal Batzari, ordaindu daben bazkide guztiai, idazleai, iragarkia ordaintzen dauan bbk'ri eta gure langille guztiai.

Bazkide dogun Ana Uriarte'ren lana eta Foru Aldundiaren diru-laguntzak bide dirala WEB orria sortu dogu: [www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz) ikurra dala eta or sartu doguz "ZER" asko. Guztiak sartuko doguz.

Eta beste esatekorik ez dagon lez, onenbestez amaitzen da barri-emote au.

Olazar'tar Martin

## URTEKO KONTUAK

2004'KO SARRERAK..... 67.315,44

URTEERAK  
KULTURARAKO..... 18.962,27  
ALDIZKARIRAKO..... 22.926,02

WEB ORRIRAKO..... 5.000,00  
GUZTIRA..... 46.888,29

GAINKIÑA..... 20.427,15

Urtero lez, igazko aurrekontuak emongo dautsuedaz. Aurten, emakume batengandik laguntza bat artu dogu, diru ori ondo etorri jaku etxeko derramak ordaintzeko. Derrama orrek 9.154.41 euro eroan dauz, aurten.

Ostantzean gitxi gorabera emakume orren dirutik erdia geratu jaku.

Beste alde batetik Foru Aldundiak dirua emon euskun web orri bat zabaltzeko, eta orri orregaz 5.000 euros geratu dira.

Emakume orreri ta Foru Aldundiari eskerrak, zor guztiak ordainduta daukaguz eta dirua geratu jaku. Aurten igaz baño, arpidedun aldetik diru gitxiago artu dogu, errietatik batez be.

### URTEERAK 2004

Irakaskintza..... 4.140,00  
Neskameari ordainduta..... 1.014,00  
Euskal Astea..... 1.200,00  
Ipuin sariketa..... 900,00  
Uri-zerga ta SS. Bilbao, ura, zarama,  
argia, urrutizkiña, etxeko gastuak,  
sarigarriak uri-zerga, etabar..... 1.985,87  
Etxeko alkartea + Derrama..... 9.722,40

GUZTIRA..... 18.962,27

### SARRERAK 2004

Bazkideen sariak..... 4.779,00  
Irakaskintzako eskuratzekak..... 2.925,00  
Emaitzak..... 20.937,21  
Beste sarrera batzuk  
moskiñak etabar..... 159,07 28.800,28

FORU ALDUNDIAK  
(kulturarako)..... 7.440,00  
(ZER aldizkarirako)..... 15.000,00  
(WEB orriarako)..... 10.825,00  
BBK (Zer'en iragarkia)..... 2.250, 16  
UDALAREN LAGUNTZA .... 3.000,00 38.515,16

GUZTIRA..... 67.315,44

### ZER ALDIZKARIAREN URTEERAK

Irarkola'ko Frak. (Flash)..... 11.264,88  
Bidalgo'ko..... 2.505,10  
Zuzendaritza..... 2.750,00  
Kobratzaillea'ri emonda..... 375,00  
Idazlea'ren alogerea..... 3.600,00  
Etiketak bidaiak etabar..... 759,54  
Izalbe (estalkiak aldizkarirako)..... 914,89  
Arriola'ri ordainduta..... 756,61

GUZTIRA..... 22.926,61

KARMELE' K

## AFRIKA: 4.- ETIOPIA

Len Abisinia eukan izena eta iñok ez daki ango erritarren jatorria zein dan, baiña eurak Salomon'en eta Saba'ko erregiaren jatorriak dirala diño. Kristo baiño milla urte-inguru lenago, Menel, Salomon'en eta Saba'ren semea basmortura joan zan eta Etopia'ra eldu bere gudariakaz. Orregaitik, oraingo erregea Haile Salasie 1 Salomon'en Errege-Etxekoa da.

Sem'darrak dina eta erlejiñoaz koptoak, Biztanlerik erdiak musulmanak.

Auxe da Europa'tarrak Afrika'n kolonizatu ez daben erri bakarra, txiroa dalako.

Italia'k bitan eskuratu nai izan dau, 1896n. eta 1935n. urteetan. Baiña erregea barriro bertaratu zan 1941n. urtean, inglesak lagunduta.

Antxiñako nekazaritza dauke baiña aspaldion abereak eroan dabez eta lurra goialdean ona dan lez, garia, artoa, tabakoa eta kafea lortzen dabez. Idi asko ikusten dira an bedarra jaten. Ondo landu ezker, Afrika'ko garitegia izan leiteke.

Addis-Abeba uri buru zarra da, 2500 m'ko goierea dauka, Afrika'ko gorena. Egazkin zelai ona dauke.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

---

# AITONAK ESAN ZIDAN

## (1. SARIA)

---

Joan zen mendearen asieran, 1900gn. urte ingurura, antzespina ikusi ornen zuen nire aitona Patxi'k. ZAZPI ZENIDE izenarekin agerpena. Erriko plazan. Eta irudipenez. zazpi senide agertokian, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa. Naparroa, Lapurdi, Zuberoa eta Beenaparroa.

– Bakoitzak bere mezua dakar. Eta entzuleen artean ere izango da oiartzuna. Onela dakit aitonak berak entzun zuenaren arabera.

Aitonak esan zidan:

– Ondoren dijoan antzespina aurre-aurrean daukat, oraintxe bertan ikusi eta entzuten ari banitz bezala. Gogo-gogoan det. Agertokiaren aurrean gaude eta antzerki saioa astera doa.

---

### AURKEZPENEA:

Aurkezleak dio: –Antziña-antziñatik gure Euskal Erriak, oitura berezi batzuk izan zituzten beren arazoak bideratu eta konpontzeko. Oitura zaarrak legó bihurtu zituzten. Eta gero demokrazia izenarekin ezagutu zena, Abraham Lincoln'k izen orren adierazpena XIX gn. mendean egin zuenerako aspaldidanik gure erria esparru orretan zebillen. Urteen joanean, gaur aurkeztuto dizueguna sortu zen. Astera goaz eta, eme!!!

### NI ARABA NAIZ

Itz gutxitan adierazteko, nire burujabetasuna nolakoa zen azaltzeko Arriaga Kofradia aipatuko det.

Erri arazoak bideratzeko leenengo erakundea. Aintzin aintziñakoa. IX. Mendearen erdialdera jo bearko genuke. Idatzitakotan 1.258gn. urtean agertzen da. Urteoro Lakua izeneko tokian, Gasteiz'ko iribarnetik gertu, Arriaga inguruan, San Joan baselizatxoaren aurrean Ekainillaren 24ean egiten genuen Batzar Nagusia. Orixe zan bada, **Biltzarrea edo Batzarre Nagusia**. Antxe nobleak deiturikoak, kleroa eta nekazari aundiak biltzen ziren eta mirabe edo "Kollazoak" kanpo geratzen zirelarik. Arazoak aztertzen ziren eta urteoro tau alkate nagusiak autatzen ziren. Auetako bat justiziaz gintzan arduradun. Baita ere buruzagia eta guda arazotarako. Batzar oriek, 1.332 gn. urterarte iraun zuten. Gaztela'k menperatu ninduen arte. "Voluntaria entrega" deitu bazioten ere. Eta geroago eskubide guztiak kendu zizkiguten 1839 eta 1876ko legeen bitartez.

### NI BIZKAIA NAIZ

Gure burujabetza Gernika'n kokatzen da. Gernika'ko arbolapean ospatzen genuen **Batzarre Nagusia**. Era-

kunde nagusi ori Bizkaia osoko ordezkariak osatzen zuten. Bi urtetik bein biltzen zen, bestelako arazo aundiren bat sortzen ez bazen bitarten. Batzarre eguna adierazteko, bezperan sua egiten zen. Eta adar doiñuaren bitartez dei egiten zen batzarrera. Adar doiñu jotze ori mendi gainetik egiten zen: Gorbea, Sollube, Oiz, Gane-gogorta eta Koltza.

1.379 garrón urteaz gero Gaztelako errege izan zen aldi berean Bizkaia'ko Jauna ere. Ez zuen ordea lurraren jabetzarik. Eta Legegintza, Justizia, Soldaduzkarena eta Zergena, erriak bere eskuko zituen. Eta era orretan Foru Pasaia izenekoak, Erriak berarekin gorde zuen, eta Errege'k Foruak zin egitera etorri bearra izaten zuen. Zin egite ori lau tokitan egiten zen: Bilbao'n, Bermeo'n, Larrabetzu'n eta Gernika'n. Erregek bere ordezkaria ba zuen Bizkaia'ko Jaurlaritzan, Korrejidore deitzen zena. Oroar ogeitamazazpi Jaun izan genituen Bizkaian: Asi 1040 urtetik Iñigo López "Ezkerra" rekin eta 1839 arte Isabel IIa'rekin. Eta 1370ean. Gaztela'ko Erregetzarekin lotuta gelditu giñen, bein betiko, Juan I. Gaztela'ko Errege'rekin ituna egiñez. Aldi berean Bizkaia'ko Jaun zelarik.

Eta geroago eskubide guztiak kendu zizkiguten 1839 eta 1876ko legeen bitartez.

### NI GIPIUZKOA NAIZ

Guk ere **Batzarre Nagusiak** genituen. Baiña Araba eta Bizkaia'kin ba-zuten aldea. Ez dira beti toki berean osatzen. Asieran nonnai, eta 1.472an emezortzi erriren izenez osatutako zerrenda bat egiten zen txandaka ospatzeko Batzar Nagusi oriek. Ona erriak: Arrasate, Azkoitia, Azpetia, Bergara, Deba, Donostia, Elgoibar, Errenderi, Getaria, Hernani, Mutriku, Ondarribi, Ordizia, Segura, Tolosa, Zarautz, Zestoa eta Zumaia.

Urteoro bi aldiz biltzarra lenengotan. Eta 1.667gna. geroztik bein. Maiatzean. Erakunde orrek baserria eta auzoa ditu oiñarri. Udala edo Eskualdea, bigarren mailan, eta ortxe autatzen ziren "**Batzar Nagusia**" osatuko zuten ordezkariak. "Unibersidade" izena. baillara edo araneke biztanleean biltzarrari ematen zitzaion. Gipuzkoa'ko politikaren antolaketan, garrantzia aundikoak izan ziren baillara edo aranak.

1.076 gn. urte arte, Naparroa'ri lotuta egon giñen. Baiña urte orretan Gaztela'ko Erregea artu genuen Jauntzat. 1.123an ordea berriro Naparroa'rekin. Eta 1.200ean bein betiko lotuta gelditu giñen, Gaztela'ri, Alfonso VIIIaren garaian, Antso Azkarra Naparroa'ko Errege zelarik. Aaide Nagusien jokaerak garrantzia aun-

dia izan zuen lotura orretan, Alfonso Errege'rekin ituna egiñez, gure aldetik, Probintziaren oitura, eskubideak eta askatasuna gordetzekotan. Geroztik 676 urtetan zear, 30 Erregek onartu zituzten Gipuzkoa'ren Foruak. Burujabetza 1839 eta 1876 ko legeen bitartez kendu ziguten.

### NI NAPARROA ERRESUMA NAIZ (824-1512). ASIERAN IRUÑEKO ERRESUMA.

Franko, Bisigodo eta Arabeen aurkako gudaldian Euskal Erria k bere buruaren alde, Baskonia Dukerria eta Napar Erresuma ( asieran Iruñe'koa) sortuko zituen. Ori Orreaga ko bi guduen artean gertatu zen.

Erregeen zerrenda:

- ✓ *Eneko Aritza (824-852)*
- ✓ *Antso Gartzeiz (905-926)*
- ✓ *Antso II- Abarka (970-004)*
- ✓ *Antso III Aundia (999-1035)*
- ✓ *Antso VI-Jakituna (1150-1194)*
- ✓ *Antso VII- Azkarra (1194-1234)*

#### *Gure erresuma Gaztela'ren eskuetara*

Aspalditandik, Gaztela saiatu zen gu bereganatzeko. Isabel Gaztela'ko Erregiña bizi zela, aalegindu ziren ezkontza bitartez Naparroa Gaztela'ri lotzeko. Naparroa Frantzia'ri lotu zitzaion ordea. Leringo Kondea ere naikoa saiatu zen bide orretan.

Isabel Gaztelako Erregiñaren eriotza gertatuta gero, 1509gn. urtean, "Fernando El Católico" deiturikoa 1512an. Gaztela'ko eta Ingalaterra'ko gudua zuela eta. Frantzia'ra igarotzeko aitzakiaz, Albako Dukea bidali zuen Gaztela'ko armadaren buruzagi, eta Burunda eta Sakanan zear, Iruñe'an sartu zen eta Ingalaterra'ren aurkako aitzakiaz, gu bereganatu gintuen.

Gero, 1515ean Burgos'ko Korteetan, ituna egin zen. Orren ondorioz Naparroa'k Gaztela'ko Errege'rekin batasuna. Baldintzak: Naparroa'k burujabetzari eutsiko dio: Lurraldeari, bere Erakunde eta Legei dagokionez. Eta orrelaxe iraun genuen 1841ko Abuztuaren 16arte bitartean, "Ley Paccionada" izenekoa egin zen arte. Oiren ondorioz: Korteetan, Erresumako Aldundia eta Justizi Epaitegiaren erantzunkizuna arautu zen. Eta ortan jarraitu dugu oraintsu arte. Gaur ordea, azken batean, Erresuma giñena, Probintzi bat besterik ez gera.

### NI BEENAPARROA NAIZ

Gure Erakundeak Naparroa'koaren antzekoak ziren. Nobleak, Erri xeeak eta Eleizak osatzen zituzten Batzar Nagusiak eta biltzarrak Saint Palais'en osatzen genituen.

Ingalaterra'ren menpean egon giñen eta Ricardo

Corazón de León'ek 1191 gn. urtean Naparroa'ri itzuli gintuen, eta 1226 geroztik Naparroa'ko Erresumako seigarren Merinaldea biurtu giñen.

Bazirudien Naparroa'ren gertakizunen ildotik jarraituko genuela, ez zen orrela gertatu ordea, 1512an, leen esan bezala, Gaztela'ko Fernando Vn. Errege Katolikoak, Duke de Alba'ren armadaren bitartez Naparroa menperatu zuen. Eta orrela gu, Beenaparroa, Enrike Ila-ren, Juan de Albret'en semearen mende geratu giñen. Eta era orretan jarraitu genuen Enrike IIIa Frantziako Errege 1589an izendatu zuten arte, Enrike IV izenarekin. Eta orrek bere burua Naparroa'ko eta Frantzia'ko Errege deitu zuen. Gero burujabetza erabat galdu genuen. Frantzia'ko era Naparroa'ko Errege zenari, izena aldatu eta Frantziarren Errege deitu zioen 1789gn. urtean

### NI LAPURDI NAIZ

Normandoen menpe aurkitzen giñen IXgn. mendean. Eun urte iraun zuten normandoek, Gaskonia ko Dukeak kanpora bidali zituen arte Xgn. mende asieran. Eta XIgn. mende asieran Antso Andia'k, Napar Errege'k, artu zuen gure lurra, Gaskoniako Dukeak zor baten ordaiñez emanik. 1.193gn. urtean ingelesen mende geratu giñen. Eta 1.450 gn. urtean, Frantzia'ko Errege zena aukeratu genuen guretzat ere.

Gure erakunde politikoa, "*Erri Batzarrea*", politika antolamenduen oiñarri. "Kapitala" izena zuen. Erritar guztiek esku artzen genuen, parrokiaren inguruan "Auzapeza" izenekoak zuzentzen zuen batzarrea. Ortik datorkio, auzapez izen ori, beste lekuetan alkate izenarekin deitzen dutena. Arazo orokorrak Ustaritz'eko Biltzarrean erabakitzen genituen. Errialdeetako ordezkariak, auzapezak "Sindikoa" izeneko zuzendaritzapean, bildurik. Biltzarreko gaiak, Lege bihurturik, ordea, Errietara itzultzen ziren eztabaidatzeko. Beraz, ortxe agertzen da gure burujabetza; gero, 1789an ordea, Xuberoa'rekin batera kendu egin zigun Frantzia'k gure burujabetza ori. Eta aldi berean, orrekin, **Erri Batzarrea** deseustatu. Frantzia uts biurtzen gintuztelarik.

### NI XUBEROA NAIZ

Erakunde Politikoa. Erria bera zen oiñarri. Nobleak eta Kleroak, ordea, talde bereziak osatzen zituzten. Eskubide bereziak genituen. Eta or Biltzarre Nagusia osatzen genuen. Naparroako Korteetan antzera eraturik zegoen gure Erakunde. Eta gure erakunde orrek Eleiz ordezkari lau zituen, amar Nobleziakoak, eta berrogeitasei erri ezberdiñetakoak.

Justiziaren administrazioa, alkateen eskuetan gertatu zen, Zainkoak izenarekin ezagutzen genituen. Orien gaiñetik Litzarre'ko Korteak, Mauleon'en eta Justizia bidetan gora jo bear zenean Pau izaten zen. Zeatzasun batzuk: Xubero'ak, Lapurdi'ren antzera, Naparroa'ko Antso 111 Aundiaren garaian, (999-1035) Biz-

---

## IPUIN-SARIKETA

---

konterri izendatu gintuzten, eta Errege ori il eta gero Gaskuña eta Akitania'ko Dukerrietara bildu, burujabetza gorderik ordea. 1155ean Leonor Akitania'koa eta Enrike II Ingalaterrakoa ezkondu ziren, eta Akitania'ko Dukerria Ingalaterra'ko Erresumaren(1307an) eskuetan gelditu zen, 1450 arte. Frantzia'ko Errege ordun nagusiturik. Eta gu " Eun urteko gerra" izenekoa zela eta Gaston XI, Foix'eko Kondearen eskuetara, Gero Frantzia'ko Luis XI garrenaren. menpera , eta onek xuberotarren burujabetzari zin egin zion.

Zazpi aizparen gai dan oiala  
ebakirikan erditik,  
alde batera iru soñeko  
utzirikan, lau bestetik.  
Guraiziekin berezi arren,  
bakoitza bere aldetik,  
ezagutzen da jantzi dirala  
zazpiak oial batetik.

*Pello Mari Otaño* dela zabaldu da entzuleen artean.

**Bigarren** jaun bat zutitu da. Apaiz jantzia du. Gizon sendoa. onelaxe dio: – Peio Marik bertsotan esan dauena, nik nire iztegiak ziurtzuten DOT. Zazpi senide, zazpi euskalkdi; eta izkuntza bakarra euskera. **Resurekzion Maria Azkue** izan da.

**Irugarren** batek onela jarraitzen du: era dotore-dotorean. Nabari du izlari bikaiña dela. –Nik euskalki orien azterketa egiñez, gramatika borobildu DUT, eta ederki asko nabari da or ere zazpi senideen arrastoa. **Arturo Kanpion** izan da.

**Laugarren** batek. Gizon lodia. Txapel aundia darama bere kaskoan. Eta onela ekin dio:

**1876koa. Fueruak kendu dituzte**

*Gutxienez izan behar du milla urte pasatua,  
Arbola aundi bat ba-da Gernika'n aitona batek sartua,  
Aien azpian egin ornen zan Fueruen juramendua,  
Orain argatik deitzen diogu arbola bedeinkatua.  
Arbola dago igartua ta euskaldunak gaude triste,  
Ez det pensatzen pasatu danik Munduan beste orren beste,  
Orain gertatu zietekeanik ere ez nuen nik uste,  
Milla urtean segitu chiten Fueroak kendu dituzte.*

Txirrita bertsolari ezaguna izan da, bertsok botatuena.

Bosgarren batek, bizardun eta dotorea, errespetu aundiz. Onelaxe dio: "Denona entzun eta gero, auxe **dot** neure iritzia: Euskatarron aberria Euskadi da. Eta burujabetasuna osoa lortzeko, geure ikurra "Jaungoikoa eta Lagi Zaarra" Fededun gabeko Perezagua izeneko batek sozialismoa ekarri digu atzerritik, eta geuk ez DOGU kanpotarrik bear geure aberria eratzeko. **Abando'ko Sabin Arana** ornen da.

**Pi y Margall'en ustea. Au España'ko Errepublikako Presidentea izan zen.**

– Antzespina bukatuta bagindoazelarik, dio aitona Patxi'k, bi gizonen arteko izketaldia entzun det. Batek onela nion: **Pi y Margall'ek**, España'ko Presidente oiak ere esan zuen: Eta bere liburuan "**Las Nacionalidades**" izenburuarekin, ortxe dakar auxe:

"Euskaldunak España'ko beste errien artean oso bestelakoak dira. Mende asko direla España'ren barruan daudelarik, 1876arte bere burujabetasuna izan zuten. Bere Erakundeak zituzten burujabetza orretan. Eta ez zuten ordaintzen Estaduaren gasturik. Napparroak 1841 Estaduari milloi t'erdi errial ordaintzen zizkion, baita ere gizonak eta dirua Españako armadarentzat. Euskal Probintziak deiturikoak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa'k, ordea, ez zuten gduetan esku artzen nazioarteko guduren bat izan ezik. Karlistadak izenekotan leenengoak zazpi urtez iraun zuen 1833etik 1840 arte. Bigarrenak lau urte. 1872tik 1876 arte. Gerra oriek galduta gero, eskubide guziak kendu zizkieten Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia'ri, "Foruak deuseztatuz".

Orrelaxe zioten bi gizakiak, plazatik irteerakoan, dio aitona Patxi'k. Eta azken esandakoaren onetan bese bide luzea aurrean duelarik, datza gaur egun **EUSKAL ARAZOA**, izenez ezagutzen denarakin.

**Eta emen, berriro, laburbilduz, atal berezia eskainiko diogu, aitonak esan zidanarekin:**

**Egoaldeari dagokionez**

- ✓ 1839 Urrillaren 25eko, eta 1876ko Uztaillaren 2lekoen legeen bitartez Euskal Foruak indargabetu. Eta aldi berean, burujabetza eta eskubide guztiak deuseztaturik gelditu ziren, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia'rentzat.
- ✓ Naparroa'ko Erresuma berriz, 1512an indarkeriaz, Alba'ko Dukeak suntsitu zuen. Gaztela'ko Fernando eta Isabel Errege-Erregeen izenean.

**Eta Iparraldean:**

- ✓ Lapurdi eta Xuberoa'ri 1789 urtean burujabetza kendu zitzairen, Biltzarrak deuseztatuz Frantzia uts bihurturik.
- ✓ Eta Naparroa'rena orrela moldatu zuten: Ordun arte "Frantzia'ko eta Naparroa'ko Erregeri" izena aldatu eta "Frantziarren Errege" deitu zioten. Eta orrela suntsiturik Frantzia uts bihurtzeraino.
- ✓ Eta 1790ganean. Frantziak bere lurraldeen birrantolaketa egin zuen. Eta orduan Euskal Departamentua sortu ordez, Bee-Pirineo'takoa sortu zuen, Bearn ere barne sartzen zutelarik, euskaldunen osotasun bat, bereziki sortu bearrean. Eta naasten orren ondorioz, Iparralde'ko Euskal Lurraldeak, Frantzia uts bihurtzearena sendotu egin zen, inoialako bereizketarik gabe.

**1980GN. URTEAN GAUDE**

**ARAZO KONPONBIDEAN**

- ✓ 1977ganean. España'ko Konstituzioan jasotakoa: Konstituzioak onartzen ditu Eskualde Foralen eskubideak. Eta 1839 Urrillaren 25eko Legea eta 1876ko Uztaillaren 21ek indar-gabetu ziren.
- ✓ 1979ko Urrillaren 25ean Gernika'ko Estatua izenpetu zen.
- ✓ 1980ean Euskal Parlamentoa izendatu da. Eta Euskal Diputazio edo Aldundiek bere nortasuna berreskuratu dute.

**1980gn. URTETIK GEROZTIKAKOA**

Geroak esan beza...

**AMAIERA**

Azken ordukoak gertatuta ere aitonak esan zidana datorkit gogora: -Bilboa Joxemari, Kirikiño'k agertzen du bizi-bizi, Euskal Erria'ren arazoaren muin-muiña "Edo Geuk edo Iñok Ez" izeneko liburuan jasota dago.

"Abertzale euskaldun asko, baiña asko!!!, ta aurrenengoak, besteei bidea erakutsi bear leuskionak, euskal errietan biziarren ta euskaldun artean ibilli arren, beti-beti!!! erdere darila dabiltz, beti erderaz idazten dabez curen idazkiak, eta euskerarik ez irakurtzeko akiakulatzat ataraten dabe euskeraz ez dala argitaltzen irakurgarri dan gauzarik.

Egi oneetatik sortzen dira lengo itaunak, egi oneetatik sortzen da bildurra, ona bagoaz jazo leitekela Euskadi guztia izatea abertzale, baiña abertzale erdalduna, ekandu onik bakoa, eusko usaiñik artu ezin leikiola inundik. Euskadi orduan ez litzake Euskadi izango, edozer gauza izango litzake, ta arteko alegiñak ardurak eta nekeak alperrekoak.

Nik illun ikusten ete dot, eta ez ete da nik diñodan bestekoa? Ai nire poza orixe balitz!!!" (1915-VII-12).

Aitona Patxi'k esan zizkidanekin sortu zaidan gogoeta. Kirikiño'renak eman bear liguke uste det kezkarik larriena. Arazo politikoak konpon litezke. Izkuntza bat balduta gero, ordea, ez da berreskuratzen. **Eta Euskerarik gabeko Erria ez da izaugo Euskal Erria**, eskubide guztiak eskuratuta ere... Eta onelaxe bukatu zidan aitonak Patxi'k izan genuen solasa.

*Bertso zaar bat kantatzen:  
Gure euskera eder ma tea  
galtzen gaur degu ikusten,  
euskaldun onak arritzeko da  
nola ez diran lotsatzen!!!  
Larramendi ta Astarloa'rik  
ez, dira ere aipatzen,  
ez dago uts egin aundiagorik  
ondo ba-degu pentsatzen.*



## GAI,DAKAO'KO ANDRA MARI TALDEA

### GALDAKAOKO ACCIÓN CATÓLICA EUSKAL DANTZAK ETA ANDRA MARI

1951 edo 1952garren urtean, Jose Luis Egiartek 17 edo 18 urte eukazala, Parroquia de Nuestra Señora de la Asunción deritxon elizako sakristian, nesken artean dantzaren bat irakatsi bear zala-ta umetxuak noizik beinean dantzan ikasten ziarduen Acción Católica-koen ardura-pean.

Dantzaren irakaslea ez dakit nor izango zan. Umetxo gazteen arduradun lana Amaia Elena Orrantiak egiten eban.

Egun baten sakristiako teatroan bertan dantza-jaiia egiteko izan ziran. Umetxorik gazteena Maite Urrutikoetxea Jugo zan, eta apur bat sartxuagoak Bego Etxezarraga, Mari Karmen Egizabal eta beste batzuk.

Amaia ikasketak egitera Bilboko Colegio Franciscano del Pilar leku orretara joian; eta berton, Pilarin Muñoz-ek neskari Valet egiten irakatsi eutson, baita dantzen artean

Vals de Estraus, jota Aragoitarrak, dantza andaluza, txankarrankua eta beste lekuren bateko dantzaren bat. Amaia-ri dantza orrein barri azaldu neuntsonean, arrituta erantzun eustan: Zuk Mariano zelan dakizu ori, nik iñoizbe iñori ere ez dausat esan eta. Eta erantzun neuntson: Amaia, nik ori orain urte askorik dakit; jakindun iturrira joan da, orretaz arduratu nintzan da.

Baia Galdakaon teatroko tokian dantzan egiteko eguna be ganean egoan, eta egun aretan Egiartek txistua jo eziña eukan eta Maite urrutikoetxea umetxoa (ezaguna nindun, nire auzoan izeko bat bizi eban da), Acción Católica'ko euren arduradunagaz ni bizi nintzan etxera agertu jatan, Jose Luis'ek ezin ebalu txistua jo, ta neu Bengoetxe auzotik Kurtzeko sakristiara dantzaren jaiia egiteko txistu jo, ta txistu joten joan neiten. Ni, Egiarte baño iru urte gazteagoa naz; ta naita lentxuago pasakalleak be jo, nire bizitzako eta lenbiziko txistu joaldia dantzatan, ez jantzatan, Kurtzeko eleizan sakristiako eszenarioan izan zan, sakristiaren goialdean teatroa bertan egoan eta.

Amaia neskatxoak animatu ta alaitu eta dantza irakasten bera be saiatu zan.

Eta zergaitik dantzak irakastea?



Basauri'ko neska dantzari taldea 1956'garrenko Maiatzaren 17an, Olabarrieta auzunean, Poblado Firestone orretan eleiz aurreko landan.

Antza danez, alde batetik neskari Maria'ren alabak esaten eutselako eta bestetik, antza, gazterie eleiz inguruan bilduta, ortik zear ibilli barik eleiz-inguruan batuta eukiteko.

Denpora areitan Galdakao'ko plazan Banda de Música de Galdacano eres taldeak "agarrau" baltzeoak, pasodoble, tango ta abar eta jotak ere bai jotzen ebazan; baña Acción Católica'ko jenteak, bai neska ta bai mutil, nai ta aspiranteak izan, galazota eukin agarrau jantzak egitea, pekatu zala ta; eta orrek gerotxoago ere jarraitu eban.

Banda de Música ortan neu be oboe jotzen asi nintzan ta plazan aldi pare bat edo jo eta gaiago eneban oboerik jo; baña txistua jotzen jarraitu neban.

Ume nintzala monaguillo ikasten be asi nintzan, baña monagillotza egundo betebarik itxi neban, Bengoetxe auzotik kurtze urrin egiten zan eta.

Lau bost urte nebazala eta geroago be, gure amagaz ni ta beste anai bat Bengoetxe auzotik Kurtzeko eleizaragiño domeketan goizeko seiterdietako mezara oñez joaten giñan, arraba ta anai gazteagoa aitagaz etxean lo itxita.

Mezea entzun eta bueltan be oñez Bengoetxera, armozeu egoten zana, orduen asko ez, eta domekea izan arren goiz erdien basora eta bazkalordurarte beiek jagoten egoten gintzazan; eta arrastien libre. Eta gure antzera gente asko ibiltzen zan.

Ez egoan askorik baña abastokoak eukiten zan dana, ta sarri geiago be, kentzen eben, ta entregateko sarritan erosi

be egin bear. orduko denporak garratzak ziran.

Galdakao'ko jentearen artean Acción Católica-tik kanpo Educación y Descanso zala ta 1948 garren inguruan Kurtzeko plazan erriko neska gazteak be jantza egin ebien, baña kasu au or itziko dogu.

### BASAURIKO DANTZA TALDEA

1956garren urtean ta lenago be Basauri erriko neska talde batek be euren dantzak egiten ebezan. Urte aretan neuk Etxebarri erriko txistulari eta Basauriko atabaleruen erdien txistu jotzen nabela, zortzi neskatatik aurreko iladatik erdiko biak, izenez Pili eta Loli dira, eta atzeko iladan dagozen albo bietakoak, gure ezkerretatik asita Meritxe eta Pili.

Ni Basauri'ra joaten nintzan eurakaz ensaietan eta eurak laurak Galdakao'ko Bengoetxe auzora etorten ziran nik egindako dantza taldeari jantzan irakastera. Argazkia 1956garreneko Maiatzaren 17koa da, Poblado Firestone (Olabarrieta) auzoko eleiz aurreko plazan, antzan egozala eginda dago eta.

### BENGOETXEKO DANTZA TALDEA

Bengoetxeko auzoan sortu zan taldeak 1956garren



## DANTZA

urtean Bengoetxeko Santa Marina jaietan dantzan egin eban.

Gero 1957garren urtean Poblado Firestoneko jaietan, Bengoetxeko jaietan eta azkenez, urte orretan Galdakaoko Eleizalden dantzatu eban. Agostuko Andra marietan Eleizaldeko landan. Gero andik txistua jotan kurtzera joateko.

Bengoetxen txistua jotan irikasten asi nintzan, eta gero Zugutzu auzuneko abade D. Ignazio Aldekoa Erkoreka jaunak baimena lortu eta Zugutzun fabrikako jan geletan solfeo piska bat eta txistua irikasten neban.

Bengoetxetik asi ziran iru gaztek 1958garren urtean Santa Mañeko egunean pasakalleak geugaz jo ebezan eta eurak Domingo Elejaga, Jose Mari Zaballa, eta Berman Maeso izan ziran.

Ni Bengoetxeko eta Basauriko taldeagaz nenbillela, Jose Luis Egiarte soldaduska Donostian egiten aurkitzen zan. 1956ko Martian asi ta 1957ko Uztailarte.

## JUANTXU JOTALARIE

Galdakaoko Acción Católicakoak gazteen artean jota-jantzak ikastea nai eban, eta 1956'garren urtean ziur eta ba leitikian 1955garreneko udagoiengan be, aspiranteen artean, bai neska ta bai mutil, jota-pausu batzuk ikas-teko asmotan ibilli ziran, Jose Luis Egiarte txistulari zala.

Euron artean gero Andra Mari dantza taldeko, neska ta mutil izango ziranak be dantzan egiten eban.

Jota maisu Juan Migel Etxebarria "Juantxu" izaten zan. Gizon au orain iru illabete inguru il da. Beren anaia, Zugutzu auzunean barberu izan zana, sakristiako tokira iñoiz aurreratu zan pausuren bat irakasten, jota txapelketan be jantzan parte artzen eban-eta.

Baña 1956garren urteko Maiatzaren 22an Egiarte soldaduska egitera joan eta Donostia'tik lizentzia artuta 1967garren urteko Uztailaren 22an etorri zan.



## DINAMITA LANTEGIKO EZTANDA ETA ILLAK

Dinamita lantegian 1956garren urteko Martiaren 4an gertautako danbarradan illak be egon ziran; eta euron artean Abeli Gutierrez eta beren bi aizta gazteagoen aita be.

Orduan Zaratamo erriko Arkotxa auzoan biziten ziran; eta andik laisterrera eta amagaz batera Galdakao'ra biziten etorri ziran. Galdakao'n Mari Carmen Jauregi ta beste neska batzuk lagun egin eta Abeli Gutierrez Acción católica-ko tokian lagun barriakaz dantza ikasten asi zan; eta dantzak ikasten asi zanetik gero Andra Mari taldearen sortzaille be izango zan.

1956garreneko Abenduaren 8'an Sorkunde egunean neska talde arek dantza pare bat egiteko, geiago ez ekien da. 1956garren urte orretan Egiarte txistularia soldadutza egiten egoan; eta txistularia neu izan nintzan. Dantza arek eleiza eta abadearen etxerarte dagoen zelaikadan egin ziran.

Gauza bat da neska mutillek Andra Mari taldean espatadantzariak sortu zan aldiregaz batera sotzea eta sortzalle izatea; eta beste gauza bat, ori baño lenago-ko aldikoak izanik, bai txistulari neska dantzari eta jota pausuetan ebiltzan neska ta mutil batzuk, geroago be Andra Mari

*Argazkian eta gure ezkerretik asita Rosalía Moreno eta alboan Inmaculada Dalmau 1956'garren Abenduko 8'an; egun orretan dantza egin da gero. Andra Mari geroago sortu zan legez, neska oneik Andra Mari taldean ez ebien dantzarik egin.*

taldearen sortzaille izatea. Gauza ezberdianak dira, nai ta guztia Kurtzeko eleizako sakristian gertau. Egiarte, Mariano eta Maite Urrutikoetxea 1951-52 garrenekoak Andra Mari sortzaileak gara.

---

## INMACULADA EGUNA 1956GARREN ABENDUKO 12AN

D. Maurizio abade jaunak 1956garren urtean esan ei eban neskatile aspiranteen artean dantzaren bat egin bearko zala, eta Egiarte soldadu egoan lez, txistua jotzeko neu deitu ninduen. Ensaio gitxi egin ziran, baña Sor-kunde egunean dantza pare bat dantzatu ziran txistulari neu nintzala.

Eta dantzaldiak zergaitik ete ziran? Uste dot Ama Birjiñaren eguna ospatzeko eta erlejiño arloan aspiranteak ziran leQez, kanpoan edonondik ibilli barik baño, eleiz inguruan alkarregaz obeto egongo ziralako.

---

## 1957 GARREN URTEA

Egiarte txistularia Donostian lizentziatuta 1957garren Uztailean soldaduskatik etxera etorri zan.

Jose Mari Gainza, gero espatadantz,ari izango zana, Dinamita fabrikera ofizioa ikasten asi zan Pistonerako ajuste lantokian.

Egiartek eta neuk be bear toki orretan lan egiten genduan.

Lana itzi ta soldaduskararte Galdakaoko imprenta baten ibilli zan: eta 18 urte eginda eukezela Gaztedi-dantza taldera joan zan, Galdakao'tik Erramon Larrauri baita Kontxi gainza beren arrabeagaz bertan dantzan geratako esmoan; baina urrin egiten zan eta denpora gitxian joateari itzi eutsien. Jose Mari, soldaduska egiten Basauri erriko Ariz'en egoan kuartel militarera boluntario joan zan, 1957 garren Urritik 1959ko Maietzerate arte.

Ni Bengoetxengo auzunean neure dantza taldeagaz txitu jotzen nenbillen eta 1957ko urte orren Agostuko Andra Marietan Eileizaldeko jaietan Bengoetxeko neskak jantzan egin eben. Urte orretan Egiarte Txistulariak Sabino Larreari, esan ei eutson, txistua berak joko ebala eta espatadantzari-talde bat Acción Católica'n sortu bearko leukiela.

---

## IÑAKI IBARRA ABADE JAUNA

Ibarra jauna 1954-55an Gasteiz'en egoan eta an bertan dantzari buruz zeozer ikasi eta 1956ganren urteko. Iraillean, Derio'ra joan zan.

1957 ganen urteko Ekainaren 21 edo 22an Ibarra Galdakao'ko parrokiari, sakristiako tokian goi-aldean dantzari buruz zeozer irakasten asi zan bertoko mutil Acción Católicako aspirante batzuri, baña denpora gitxien, Egiarte

te txistulariaren esanari kasu egin eta Ibarren gogoa ikusita Acción Católicaari Jose Mari Gainza eta Ramon Larrauri Gaztedi dantza taldera bialdu zituen.

Udagoien azkenerantz dantza pausu batzuk ikasteko; baña ezer edo gitxi lortu eta Txinberari deitzearen akordua azaldu ei zan.

Gainza kuartelean, nai ta lenengoan ta astirik euki ez, gero arratsalde eta gauak libre eukiten zituan.

Egiarte ta neu gongozan txistu jotzen, baña zazpi dantzari baño ez egozan ta Txinberak zortzigarrena izateko eskatu eustan eta olan dantzak irakasten asi nintzan. Orduko urtean neskak be ez ebien dantzarik egin.

Iñaki Ibarra abadeak beren lenengo mezea 1958ko Uztaillaren 20an Galdakao'ko Parrokiari ospatu eban.

---

## 1958 GARREN URTEA

Mutillak urte onetako neguan dantza-pausuak eleizako arkupean ikasten asi gintzazan. Euria egiten ebanean teiilatuko itxisurak zirala-ta, arrizko zelaia be buzi egiten zan eta bein baño geiagotan Dr. Gandasegiko eskolaren arkupean joan giñan, sakristiko gelea dantzan egiteko moduan ipiñi-arte.

Soldaduzkara joatea derrigorrezkoa izaten zan, baiña Galdakao'tik 15 mutil edo geiago Basauri'ko Ariz'en egoan kuartel militarera boluntario joan gintzazan 1958'ko martian asi eta 1959'ko urrillera arte.

Joan gintzazenetik bigarren illebetearen banderearen "jura" egin maiatzean eta gero guardia edo olakoak egiteko izan ezik, arrastiak eta gauak eta jaiak etxean egiten genduzan.

Dinamiteak soldadutza-denporan ez ginduzan artzen eta etxean dirua bear zan lez, tallerretara orduak sartzen joaten nintzan.

Orrelan urte orretan be Galdakao'n parrokiako sakristian bai dantzan eta bai txistu jotzen jarraitu neban.

Nigaz batera eta soldaduzka egitera Jose Mari Barrenetxea, taldekoa bera be. joan zan, eta Pedro Mari Azkue-ta'k baita Jesus Uriarte'k dantzari izango ziranak soldaduzka geugaz egin eben.

Jesus Uriarte 1936'an jaioa zan eta "serbitzio militar obligatorioa" egitera, 21 urtegeaz, Zorrotza'ra joan zan eta andik lasterrean Basauri'ko Ariz'ko kuartelera etorri zan.

Asikera ezpatadantzari-taldean, osan dodan modura, ibilli giñan. Taldearen lenengo urtenaldia Usansolo'ra izan zan; niri buruko ulea egun batzuk lenago kuartelean lau zerora ebagi eusten-eta, txapelagaz ezalduta dantzatu neban. Bai Usansolo'n eta bai geroago Kurtzen. plazara dantzan urten-orduko eskola barruetan ensaio bat egin gendun.

Galdakao'ko eleizan taldea osotu zanean Amantzi lendakari eta Sabino sekretario egin genduzan, Jose Mari Barrenetxea "Acción Católica"ko sekretario izendatua izan zan.

**MARIANO JOSE BARRENETXEA**



# BBK

EUSKERAZALEAN

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha  
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

# txartelak



## **BBK txartelek opariak gordetzen dituzte**

Ordaindu erosketak edozein  
BBK txartelekin eta, hilerro,  
itzelezko opariak irabazi ahal  
izango dituzu.

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

ISSN: 1132 - 1350  
Lege gordailua: BI-1452-85  
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

**bbk<sup>2</sup>**